

Emakumeen aurkako indarkeria eta Gizarte Hezkuntzako unibertsitate-sinesmenak: prebentziorako eta heziketarako bide parte-hartzailea

Ainara Arnoso, Sheila Melcón, Maialen Costa eta Maite Isasa
Unibertsitateko irakaslea, psikologoak

Lan honen xedea, unibertsitateko Gizarte Hezkuntzako ikasleen artean (N=125) emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko irudikapenak aztertzea da. Irudikapen sozialaren eredu teorikotik abiatuta (Moscovici, 1961) eta metodologia parte-hartzailearen bitartez, emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko esanahiak, indarkeria honen jatorriari buruzko usteak eta prebentzio-estrategien proposamenak aztertzen dira, helburu bikoitzarekin: a) prebentzio-neurri bezala, beraien etorkizuneko lanean eragin dezaketen mito eta uste okerrak errebisatu eta zuzendu ditzaten laguntzea; b) informazio gehigarria eskaintzea beraien etorkizuneko hezkuntza-prestakuntza osatuago bat opatzeko.

GAKO-HITZAK: Emakumeen aurkako indarkeria · Unibertsitarioak · Irudikapen sozialak · Prebentzioa · Parte-hartzea.

This paper aims to advance the study of social representations of violence against women in the university population of social education (N=125). From the theoretical framework of Social Representations (Moscovici, 1961) and based on a participatory methodology, differential meanings and shared meanings on issues such as the causes of the violence and the strategies to prevent it, are analyzed with a double objective: a) contribute, as a preventive measure to review and correct any myths and misconceptions that may interfere on professional performance; b) provide information of interest to complement the future training of the professionals as they will be involved in the prevention and treatment of the violence against women.

KEY WORDS: Cconvergence · Multimedia journalist · Participatory methodology.

Jasotze-data: 2010-01-29. *Onartze-data:* 2010-04-26.

1. Sarrera

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eza, eta horren adierazpen bortitzena den indarkeria matxista, oso fenomeno korapilatsua da. Presente egon izan da denboran zehar era desberdinetan. Batzuetan, kontrol sozialaren ondorioz edota diskriminazioa dela medio, modu subliminal edo ezkutatu batean; beste batzuetan, modu objektibo batean, non eraso bortitzak egin ohi diren emakumeen aurka.

Erroak gure gizarte-antolakuntza ereduaren oinarri diren egitura politiko, sozial, ekonomiko eta kulturaletan dituela uler dezakegu. Esan daiteke, beraz, emakumeen aurkako indarkeria sistema-egitura honen atzean ezkututzen den fenomeno dugula.

Hezkuntza- eta ikaskuntza-sozializazioaren bitartez gertatzen da. Herman-ek dioen bezala (1992), elementu horiek desberdintasun- eta indarkeria-egoerak mantentzen dituzte. Azken batez, hezkuntzak eragin izugarria izango du bai kulturaren baita indarkeriaren bitartez emakumeen jabetza pribatua lortu nahi duten gizonengan ere. Gainera, sozializazioak, jendarte horretan nagusi diren balioen eta printzipioen bereganatzea dakar, baita normalizaturik dauden jarrerak ere. Horrek eragingo du ikasitako guztia etorkizun batean errepikatua izatea eta jarrera hauen azpian dauden elementu sakonak betikotzea.

Lorente-rekin bat etorrita (2007), pentsatzen dugu emakumeen aurkako indarkeria erakusten duten jarreraren atzean elementu komunak daudela: kulturalki genero bakoitzari ezarri izan zaizkion balioak, non boteredun posizio batetik desberdintasun hauek posible izatea ahalbidetu duten.

Nahiz eta egun jakin sistema patriarkatu hau emakumeen kontrako indarkeriaren eragilea dela (Corsi, 1995; Heise, 1998), fenomeno hau enpirikoki aztertzean, sistema patriarkatua, ezaugarri soziodemografiko hutsa (adina, egoera zibila, ekonomikoa, hezkuntza-maila) eta gizonezkoaren jarreraren aspektua izatera pasatzen da (oro har, droga- edota alkohol-kontsumoa). Modu horretan izaera estrukturala duen fenomeno (patriarkatua), indibidualki aztertzen diren erakusleak izatera murriztu ohi da. Murrizketa horrek genero-indarkeriaren karikatura moduan bi pertsonaia agertzea ahalbidetzen du (Castro eta Riquer, 2003): alde batetik, heziketa baxuko gizon bat dugu, ekonomikoki errekurtso baxukoa eta gehienetan langabezia; bestetik, emakumea biktima gisa, indarkeriaren hartzaila pasiboaren irudi bezala.

Beharrezkoa dirudi, beraz, egiturazko edo fenomeno estruktural gisa ulertzen den patriarkatuaren eta gizabanakoaren jarreraren adierazpenen artean dauden bitartekariak aztertzeak. Hori lortzeko, soziala den ikuspegi atomista gainditzea beharrezkoa litzateke, emakumeen kontrako indarkeria ikuspegi soziologiko batetik ulertuz. Lehen pausoa gizon zein emakume konkretuak era berean jendarte honen eramaileak eta ekoizleak direla (Gideens, 1995) kontsideratzean datza. Ulertu dezakegu, beraz, gure kognizioa, portaera eta harremanak, denbora eta espazio zehatz batean dauden kognizio eta praktika nagusien edo menderatzaileen adierazleak direla.

Ildo horretan, Irudikapen Sozialen Teoriak (Moscovici, 1961) ezagutzaren forma sozialen inguruan hitz egiten du, eta bereziki zentzuaren ezagutzaren inguruan.

Horrela, alderdi sozialera hurbiltzen da, pentsamenduaren eta talde sozialen ekin-tzen testuinguru sozial eta kulturala kontuan hartuta. Teoria horren oinarrian aurkituko dugunez, eduki eta prozesu kognitiboak sozialki mugatuta daude eta irudikapen-prozesuak dira ekintzak gidatzen dituztenak. Baldintza sozial eta gertaera nabarmenekin du zerikusia, emozioak mobilizatzen dituen neurrian. Modu horretan, irudikapen sozialak prozesu kognitibo-emozionalak izango dira, egoera-ren arabera alderdi bat edo bestea aktibatzen delarik (kognitiboa, emozionala edo biak) testuinguruaren edota egoera pertsonal zein sozialaren arabera.

Ezagutza praktikoa suposatzen du, inguru sozialaren eta materialaren ulermenera eta menderatzera bideratuta. Gerturatze ez-positibista batetik abiatuz, ulermenean eta fenomeno sozialen interpretazioan oinarritzen da. Horrela, banakoaren eta gizartearen arteko zubi moduko kontzeptua suposatzen du, hainbat zergati, informazio, sinesmen, iritzi, estereotipo zein jarrerari men eginez.

Jakin badakigu, bikote-mailan gertatzen den emakumeen aurkako indarkeria agertzeko zenbait faktore soziokultural daudela, irudikapen, sineskera eta jarrera toleranteak hauen lekuko. Horregatik, egun, hau azaltzeko dauden eredu multi-kausaletan presente egongo dira (Heise, 1998; Heise eta García-Moreno, 2003; Sanmartín, Farnós, Capel eta Molina, 2000; UNICEF, 2000). Gai honen inguruko ikerketak erakusten du, sineskera eta jarrera hauen aurrekari garrantzitsuenak genero eta generoaren inguruko roletan aurkitzen direla (Berkel, Vandiver eta Bahner, 2004; Mullender, 2000). Aurreko planteamenduekin bat eginez, ikusi izan da gizonezkoek eta ohiko genero-rola dutenek emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko jarrera gehiago erakusten dituztela emakumeek baino, baita genero-berdintasunaren aldeko rola dutenek baino ere.

Emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko sinismenekin eta jarrerekin erlazionatzen den beste faktore bat heziketa-maila izango da. Horrela, adibidez, Yosioka, Dibbia eta Ullah-k (2001) ikusi zuten AEB eta Asiako lau komunitateko pertsona helduek osaturiko lagin bateko % 24-36k bikote-indarkeria justifikatzen duela egoera batzuetan, hezkuntza-maila iragartzailerik demografiko bakarria izanik. Esan daiteke, gero eta hezkuntza-maila altuagoa izan, orduan eta justifikatzeko maila gutxiago eta alderantziz.

Hala ere, arazo honen inguruko prebentzioan heziketa-maila altua izateak ez du ziurtatzen emakumeen aurkako indarkeriaren justifikaziorik ez agertzea. Gainera, aurkitu izan da unibertsitate-ikasketak dituztenen artean ere badaudela indarkeriaren aldeko irudikapenak. Adibidez, Lehen Hezkuntzako eta ospitaleetako profesionalekin eginiko lan batzuetan (Sugg, Thomposn, Thompson, Maiuro eta Rivara, 1999) erakutsi da ezagutza, kontzientzia eta entrenamendu maila baxuek lotura dutela pertzepzio okerren eta indarkeria honekiko aurreiritzi-jarreraren maila altuekin.

Testuinguru horretan Ferrer, Bosch, Ramis, Torres eta Navarrok (2006) Balearretako Unibertsitateko ikasleen sineskera eta emakumeenganako indarkeriaren aldeko jarrerak azertu zituzten, lagin esanguratsu bat aukeratuz. Emaitzek erakutsi zuten generoan eta gai honen inguruan heziketa zehatza jasotzeak baldintzatzen zituela emakumeenganako indarkeriaren inguruko sineskerak eta irudikapenak. Ikusi izanenez, gizonezkoak eta heziketa berezi hori jaso ez

dutenak tolerantetagoak izan ohi dira indarkeria mota honekiko, eta estereotipo tradizionalaren onarpen eta misoginia handiagoa agertu ohi dute ere. Tratu txarrak jaso dituzten emakumeek errudun sentitzeko joera handiagoa dute, azken batez indarkeria mota hau arazoak konpontzeko modu egokia dela adieraziz, tratu txarrak ematen dituenari kulpak kenduz.

Horrela, sexismoaren eta indarkeriaren inguruko sineskerak gutxitzeko asmoz, egun dagoen legeriak (genero-indarkeriaren aurkako babes integralerako neurriak buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa) eduki hauek hezkuntza-maila desberdinetan integratzearen beharra azpimarratzen du, irakasgai zehatz moduan kursoan zehar, hitzaldien bidez edota beste jarduera batzuen bitartez, literatura espezializatua hain zuzen ere.

Gizarte Hezkuntza diziplina bezala, behar moduan aurkezten da gaur egun mugitzen garen estruktura sozial konplexuek dakartzaten arazo berriei aurre egiteko. Genero-indarkeriaren gehikuntza dakarten agertoki horiek hezkuntzaren ikuspegitik jokatzeko duten profesionalak behar dituzte. Izan ere, Hezkuntzako eta Pedagogiako profesionalak, egoera honetaz jabetuta, eskola profesionaletan taldekatzen ari dira hezkuntzaren optika batetik jokatzeko. Hezkuntza- eta sentsibilizazio-programak bideratuz, ekimen asko bultzatzen ari dira: hezitzaile soziala irudi modura duen aspektuaz eta estrategiaz erreflexionatzeko, gain hartu behar dituzten egoerek dakartzaten exigentziak aztertzeko, eta entitate publiko eta pribatuek eskaintzen dizkieten aukerak ikusteko. Hau guztia prestakuntzarako alderdi beharrezkotzat dute ondorengo egoeraren aurrean jarduteko.

Jakin badakigu irudikapenak ekintza soziala erregulatzen dutela eta taldearen jarrera gidatzen dutela. Aldi berean, erabakiak eta gertaera baten aurrean burutzen diren ekintzak arrazoitzeko baliagarriak dira. Horrek guztiak gure interesa piztu du eta jakin nahi izan da existitzen diren sinesmenak eta definizioak zein neurritan diren koherenteak ezarritako rol profesionalekin eta indarkeriaren prebentzioa azpimarratzen duen hezkuntza-sistemaren helburuekin.

Gizarte-hezitzaileak izango diren ikasle unibertsitarioen laginera iristeko asmoarekin, hauek gerora etorkizun batean eremu honetan modu zuzen edo ez-zuzen batez lana egingo dutela ikusita, ikerketa-ekintza parte-hartzailearen esperientzia hau aurkezten da hemen.

Lan honen xedea, unibertsitateko Gizarte Hezkuntzako ikasleen artean emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko irudikapenak, biolentzia horren jatorriari buruzko usteak eta prebentzio-estrategiak aztertzea litzateke. Bi helburu nagusirekin: a) prebentzio-neurri bezala, beraien etorkizuneko lanean eragin dezaketen mito eta uste okerrak errebisatu eta zuzendu ditzaten laguntzeko; b) informazio gehigarria eskaintzeko etorkizuneko hezkuntza-prestakuntza osatuago bat opatzeko.

2. Metodologia

Parte-hartzaileak

Ikerketa honetako lagina (N=125) Gizarte Hezkuntzako ikasle unibertsitarioen bi taldek osatzen dute, Euskal Herriko bi hizkuntza ofizialetan banatuak: euskara (n=43; % 34,4) eta gaztelania (n=82; % 65,6). Laginaren % 82,3 emakumeak

dira (n= 102) eta % 17,7 gizonezkoak, non adinaren batez bestekoa % 22,39 den (SD: 5.37).

Lagin honen gehiengoa, % 85,6, Gipuzkoakoa da. Gainerakoak: % 8,6 Bizkaikoa, % 3,4 Nafarroakoa eta % 2,5 Arabakoa.

Azkenik, aipagarria den beste datu bat, % 37,9k gertuko biktimarik ezagutzen du. Norberak jasandakoa da % 7,4, familian % 19,8 eta gertuko lagunek jasandakoa % 10,7. % 62k ez ditu jokaera hauek jasan.

Datu-bilketako tresnak eta galde-sortak

Ikerketa hau egiteko erabilitako instrumentua bi zatitan banatutako galdeketa bat izan da. Lehen, hitzen asoziazio askeko atala da non eskatzen zaien «emakumearen aurkako indarkeria» estimuluari buruz burura datozkien lehen lau hitzak idazteko. Bigarrenak, berriz, gizartea diskriminatzeko aldagai nagusiez gain (sexua, adina, egoera zibila, formazio akademikoa, bizilekua, biktimizazio-esperientzia zuzena edo zeharkakoa...), hainbat galdera jasotzen ditu: indarkeria matxistaren zergati orokorrak, indarkeria-eraso horretan emakumeak dituen mantentze-arrazoiak, biktimarekin loturiko emozioak eta hartu lituzketen neurriak prebentziorako eta biktimarekin esku-hartzea egiteko.

Bi galdeketa diseinatu ziren euskara eta gaztelaniara moldatuta. Datuak 2007ko azaro eta abendu artean jasoak izan ziren.

Prozedura

Subjektu guztiek erantzun zioten galdeketa anonimoki eta eskola-ordu batean kolektiboki. Erantzuteko denbora-tartea ordu erdikoa zen. Talde bietako inork ez zion uko egin eta ez zuten ezezkorik esan galdeketa egiteko orduan. Oro har, nabarmendu behar da azaldutako jarrera oso positiboa izan zela.

Hitzez hitzeko datuekin, errepresentazio sozialaren eremu semantikoa ezagutzeko analisi bat egin genuen. Edukien analisisen bidez eginiko irudien azterketak bideratzen gaitu zenbait kategoria egitera non aldagai psikosozialak barne hartzen dituen eta pisu edo garrantziaren arabera, frekuentzien terminoetan, ordena ditzakegun. Kategorizazio-sistema hiru epai «itsu» eta independenteren bidez egin zen kontuan izanda horietako batek formazio sendoa eta esperientzia zuela gaiarekin. Aurkitutako epaileen arteko kointzidentzia-mailak (Kappa Indizea 0,60-0,80) fidagarritasun onargarria eskaintzen duen kategorizazio-sistema batekin lan egitea ahalbidetzen du.

Lehen kategorizazioa egin ondoren, dimentsio teorikoak definitu ziren non barne hartzen diren kategoria guztiak.

Datuen prozesamendu kuantitatiboa egiteko Windows-erako SPSS 17. (Social Package for Social Sciences) programa erabili zen, kategoria eta dimentsio bakoitzeko subjektuen maiztasunak eta ehunekoak kalkulatzuz.

Emaitzak partekatu ziren parte hartu zuten taldeetan. Ikerketa parte-hartzaile hau bideratzeko, kontuan hartu dugu eztabaida-taldea, kontzientziazio-sentsibilizazio metodoa den aldetik. Gure gaiari lotuta, metodo horren helburua da taldeak

emakumeen kontrako indarkeriaren sinesmen inguruko kontzientzia hartzea eta jabetzea beren irudikapenak lotuta daudela gizarteko prozesu zabalagoekin.

Eztabaida-taldearen metodoak hiru iturritatik hartu ditu kontzeptu nagusiak: Freirek landutako kultura-zirkuluetatik (1973), kontzientziazio-talde feministetatik (Allen, 1972) eta National Training Laboratory-tik (NTL). Hiru iturri horien ekarpen nagusiak integratuz zehaztu dira eztabaida-taldeak bideratzeko elementu nagusiak: a) taldeko kideen errealtatea ezagutzea eta abiapuntutzat haien beharrak eta sinismenak hartzea, eta ez teoria eta kontzeptu orokorrak; b) taldeko kideen parte-hartzean berdintasunezko harremana ezartzea, eta koordinatzaileak nahiz parte-hartzaileek elkarrengandik ikastea sustatzea; c) taldeko azterketaren bidez, taldekideen esperientzia jakinak gizarte-prozesuekin lotzea; eta d) taldeko prozesuetan, lankidetzeta eta laguntza bultzatzea.

Izan ere, Martín-Barók (1998) bezala uste dugu kontzientziazio-prozesua psikologikoa eta soziala dela. Kontzientzia, gizabanakoaren eta munduaren arteko prozesu dialektiko horretatik sortzen da, eta kontzientziazio-prozesuak berekin dakar gizabanakoaren eraldaketa erabatekoa, kontzientzia hori erreflexua eta operatiboa izan dadin. Baina aldi berean, prozesu soziala ere bada. Izan ere, pertsonaren kontzientziak zentzua du soilik dimentsio soziala den aldetik, eta gainera, kontzientziarioaren subjektua oroz gain eta batez ere komunitatea da, bizi garen gizartea, alegia.

Ildo horretan, gure galdeketa pasatzean, indarkeria matxistaren zergati eta prebentziorako estrategia ezberdinen inguruan hausnarketa egin zen, sentsibilizazio-kontzientziario prozesu bat ahalbidetuz, gizarte-hezitzaileen irudikapenak ikertzen ziren bitartean. Lortutako informazioa aztertu ondoren partekatu zen parte hartu zuten taldeetan, elkarrekintza eta eztabaida bultzatuz. Hau egin zen zituzten mito eta sinesmen faltsuak berrikusi eta zuzentzeko helburuekin, prebentzio- eta sentsibilizazio-neurri bezala. Modu horretan parte-hartzaileak, ikerketaren objektua izan beharrean, ezagutza-erakitze prozesu horren subjektuak izatera pasatu dira, eta emaitzak, partaide guztien elkarrekintzaren ondorioz lortu dira.

3. Emaitzak

3.1. Emakumeen aurkako indarkeriaren irudikapenak

Elkarri banatutako kontzeptuak aztertzeke helburuarekin, unibertsitarioek «emakumeen aurkako indarkeria» estimuluari emandako erantzunen eduki-analisia egin zen. Hauek esaten dute nola objektibatzen diren, fenomeno konplexu bat nola bihurtzen den metafora, irudi eta kontzeptu zehatz.

Aintzat hartu ziren 5 baino frekuentzia gehiago zituzten hitzak. Horrela, guztira 432 hitz hartu ziren eta 30 kategoria osatu ziren, esandako hitzen % 92,59 barne harturik.

Lehen kategorizazioa egin eta dimentsioak definitu ondoren, analisi kualitatibo eta kuantitatibo bat egin zen 1. taulan ikusten den moduan:

<i>1. taula.</i> Emakumeen aurkako indarkeriari loturik dauden usteak, maiztasunak eta ehunekoak (N=125).		
	Maiztasuna	Ehunekoak
Definizioa/kontzeptuak	44	% 35,2
Erasoa, indarkeria	19	% 15,2
Tratu txarrak	18	% 14,4
Gehiegikeria	7	% 5,6
Tratu txar fisikoak	35	% 28
Indarkeria fisikoa	23	% 18,4
Heriotza	12	% 9,6
Tratu txar psikologikoak	28	% 22,4
Mespretxua, ofentsa	11	% 8,8
Tratu txar psikologikoak	10	% 8,0
Mehatxua, iseka	7	% 5,6
Tratu txar sexuala	5	% 4,0
Bortxakeria eta abusu sexualak	5	% 4,0
Zergati sozialak	39	% 31,2
Matxismoa	16	% 12,8
Desberdintasuna	9	% 7,2
Botere-harremana	7	% 5,6
Jatorri soziala	7	% 5,6
Banakako zergatiak	10	% 8,0
Koldarkeria	5	% 4,0
Gaixotasun mentalak	5	% 4,0
Egunerokotasuna	26	% 23,2
Errealitatea, egunerokotasuna	26	% 20,8
Emozioak	109	% 87,2
Sufrimendua	28	% 22,4
Inpotentzia	18	% 14,4
Defentsarik eza	17	% 13,6
Beldurra	17	% 13,6
Tristura	16	% 12,8
Amorrua, ukapena	15	% 12,0
Indarkeriarekiko balorazioa	78	% 62,4
Injustizia	25	% 20
Onartezina	15	% 12,0
Arazoa	14	% 11,2
Ez-gizatiarra	13	% 10,4
Zerbait txarra	11	% 8,8
Laguntza	26	% 20,8
Laguntza-euskarria	18	% 14,4
Neurri juridikoak	8	% 6,4

Lehenengo dimentsio batean, **emakumeen aurkako indarkeriaren definizioa**-rekin (n=44; % 35,2) erlazionatuta dauden elementuak agertzen dira. Indarkeriari erreferentzia egiten diote (n=19; % 15,2), indarkeria, erasoak, eta zapalkuntza kontzeptuak erabiliz. Baita tratu txarrak (n=18; % 14,4) eta gehiegikeria (n=7; % 5,6) ere.

Indarkeria bere modu guztietan aipatzen da; indarkeria fisikoa, indarkeria psikologikoa eta indarkeria sexuala. Horrela, **indarkeria fisikoak** (n=35; % 28)

barne hartzen ditu tratu txar fisikoak (n=23; % 18,4), non sartzen diren eraso fisikoaren modu desberdinak (kolpeak eta jipoiak), hala nola emakumearen gorputzean min egin dezaketen edo lesio fisikoak sortzen dituztenak (ubeldura, erredura, ondorioak), kasu batzuetan heriotzara ere eramanaz (n=12; % 9,6). **Indarkeria psikologikoak** (n=28; % 22,4) tratu txar psikologiko edo emozionalak (n=10; % 8) barne hartzen ditu, hala nola gutxiestea eragiten duten ekintzak edo sufrimendua dakarten jarrerak. Barne hartzen ditu mehatxu berbalak eta irainak (n=7; % 5,6), gutxiespena eta apalkuntza (n=11; % 8,8) zeinek autoestimua baxua eta segurtasun falta sortzen baitute biktimarengan. Azkenik, aipatzen dute **indarkeria sexuala**, barne hartuz abusu sexualak eta bortxaketak (n=5; % 4).

Emakumeen aurkako indarkeria egungo gizartean arazo zabalduta eta garrantzitsutzat jotzen dute (n=26; % 20,8). Errealtzat dute egoera, **gaurko eta eguneroko** arazotzat hartuz.

Emakumeen aurkako **indarkeriaren jatorri sozialari** egiten diote aipamena (n=39; % 31,2), botere-harremanak (n=7; % 5,6), ideologia matxistak (n=16; % 12,8), injustizia-egoera eta ezberdintasunak (n=9; % 7,2) gizartean irauten dutela eta kultura androzentriko eta gizarte gaixo baten jarraibide batzuen ondorio baino ez direla kontsideratuz (n=7; % 5,6).

Garrantzi gutxiago hartzen dute **erasotzaileari dagozkion ezaugarrietan** oinarritzen direnek (n=10; % 8): koldarkeriak (n=5; % 4) eta gaixotasun mentalak (n=5; % 4), arazo psikologikoak, alkohola eta drogak barne sartzen direlarik.

Halaber, nabarmena da **biktimarekin erlazionatuta dauden emozio** ugari agertzen direla, bai subjektu zein objektu (n=109; % 87,2). Horrela, erreferentzia egiten diete biktimak eduki ditzakeen emozioei. Hauek lotuta daude indarkeriaren ondorio diren min eta sufrimenduekin (n=28; % 22,4), beldur eta izuarekin (n=17; % 13,6) eta defentsarik ezarekin (n=17; % 13,6). Era berean tristura (n=16; % 12,8), inpotentzia (n=18; % 14,4) eta amorru-egoerak (n=15; % 12) agertzen dira eragiten duten emozio bezala.

Emakumeenganako indarkeriaren balorazioan (n=78; % 62,4) arazo (n=14; % 11,2) onartezintzat (n=15; % 12) jotzen da, ez-gizatiar (n=13; % 10,4) eta zuzengabea (n=11; % 8,8) dena.

Azkenik, emakumeen aurkako indarkeriaren arazoari aurre egiteko aurkitu beharreko **soluzioei** aipamena egiten diete (n=26; % 20,8), biktimekiko laguntza (n=18; % 14,4), eta justiziaren neurriak (n=8; % 6,4), beste batzuen artean.

3.2. Zergati orokorrak

Emakumeen aurkako indarkeriaren zergatiei buruzko irudikapen eta usteak aztertzeke helburuarekin, aurreko estimuluarekin eginiko prozedura berdinari jarraitu zitzaion. Erantzunak hurrengo galderetatik eratorri ziren: «Emakumeen aurkako indarkerian pentsatzerakoan, hainbat gauzarekin lotzen dut, baina orokorrean zergatietan pentsatzen badut...?»

Guztira, 221 erantzun jaso ziren 14 kategoria osatuz. Emandako erantzunen % 91,40 izanik.

Lehen kategorizazioa egin eta dimentsioak definitu ondoren, analisi kualitatibo eta kuantitatibo bat egin zen 2. taulan ikusten den moduan:

<i>2. taula.</i> Emakumeen aurkako indarkeriaren zergatiei loturik dauden azalpenak, maiztasunak eta ehunekoak (N= 125).		
	Maiztasuna	Ehunekoak
Emakumeenganako indarkeriaren jatorri soziala	97	% 77,6
Gizonaren nagusitasuna eta jokabide matxista	47	% 37,6
Egungo arazoa, oinarri sozialarekin	14	% 11,2
Gizarte patriarkala	13	% 10,4
Jarrita dauden rolen iraupena, aldaketarako erresistentzia	12	% 9,6
Generoaren sozializazio tradizionala	11	% 8,8
Erasotzailearen ezaugarriak/banakako azalpenak	64	% 51,2
Arazo psikologikoak eta nahaste mentalak	22	% 18,0
Gizonaren autoestimua baxua eta ziurgabetasuna	21	% 16,8
Alkohola eta drogak	9	% 7,2
Tratu txarren aurreko esperientziak	7	% 5,6
Jeloskortasun patologikoak	5	% 4,0
Bikotearen faktore psikosozialak eta testuingurukoak	32	% 25,6
Ingurunearen presioa	13	% 10,4
Biktimaren egoera psikosoziala	13	% 10,4
Heziketa eskasa	6	% 4,8
Justifikazina	9	% 7,2
Justifikazina	9	% 7,2

• Emakumeenganako indarkeriaren jatorri soziala

Zergatiei dagokienez, azalpen gehienak, emakumearen aurkako indarkeriaren *jatorri sozialari* dagozkio (n=97; % 77,6).

Emakumeen aurkako indarkeriari egiten diote erreferentzia eta **sexu arteko erlazioak modu hierarkikoan** ulertzen dituzte. Horrela, gizonaren sexua emakumearena baino esanguratsuagoa eta nagusiagoa dela salatzen dute (n=47; % 37,6). Gizartean eta erasotzaileengan dauden **ideia eta jokabide matxistak** aipatzen dituzte. Aintzakotzat hartzen dute tratu txarrak ematen dituenak ustezko nagusitasun maskulino bat duela, eta emakumeak berezko gutxiagotasun natural bat, emakume askok termino hauek barneratzen dituztelarik. Halaber, agintebanaketaren desberdintasunarekin erlazioatutako ideia batzuk agertzen dira, hala nola **emakumea bere jabe** dela uste izatea eta **kontrol-gaitasuna**.

«Batez ere gizonen gehiegikerian pentsatzen dut, bere lidergoa erakusteko nahia».

«Askotan emakumea ahula izango balitz bezala ikusten da, emakumeak gizona gabe ez dela ezer pentsatzen du, eta hortaz baliatzen da erasotzailea».

«Gizonezkoek emakumei burua jaten diete eta beraiekin nahi dutena egiten dute beraienak izango balira bezala».

«Gizonezkoak emakumea galtzearen beldur direnez, beraien inguruko gutzia kontrolatzen saiatzen dira».

Emakumeenganako indarkeria **gizarte-arazotzat** hartzen dute, gizarte atzeratu baten jarrera izanik (n=14; % 11,2).

«Gizartean dagoen arazo larri bat da, gero eta emakume gehiago hiltzen direlarik».

«Gizartea dakarkit burura, honetan dauden hutsuneak eta honenganako sentitu daitekeen inpotenziaren azalpena».

Halaber, **ideologiari** eta gizartean dauden **uste patriarkal nagusiei** egiten diete erreferentzia, eta erasotzaileetan, eta emakume eta gizonen arteko agintezberdintasunaren banaketaren legezketasunean (n=13; % 10,4). Hala nola emakumearekiko indarkeriaren erabilera (sinbolikoa barne).

«Gizartearen sistema patriarkala izan daiteke zergatia, munduan orokorrean gizezkoa emakumearen gainetik agertzen baita».

«Kulturalki barneratua izan da gizezkoen nagusitasuna eta emakumeen gutxitzea».

«Berdintasun parekidetasunaren falta dago, beraz emakumea gizonaren azpitik dago oraindik ere zenbait alorretan, arazo honen ondorioz gizezkoen emakumeak gutxiesten dituzte».

Kontuan hartzen duten beste azalpen bat **ezarrita dauden rolen mantentzea** da. Gizarteak eta gizon batzuek aldaketari erresistentzia jartzen diote (n=12; % 9,6), emakumeak gaur egungo gizartean beste paper bat izatea onartzen ez dutelako.

«Emakumeen aurkako indarkeria kultura aldaketatik dator, tradizioaletatik liberalagora, honek pertsona kontserbadoreengan talka gogorra suposatzen du eta onartu ezin duten egoera horren aurrean erantzun biolentoa ematen dute».

«Emakumearen independentziaren aurkako gizonaren erreakzioa».

Sozializazio-ereduak eta generoaren heziketa tradizionala, neskei eta mutileri erakusten zaizkien tradizioak hainbat heziketa-esparrutatik (n=11; % 8,8).

«Lehen kausa hezkuntza dela uste dut eta gizarteak gizon eta emakumearekiko duen kontzeptualizazioa».

«Gero eta mundu konpetitibo eta egoistago batean bizi gara, non heziketa gaitegi formaletan oinarritzen den eta ahaztu egiten diren emozio, sentimendu, eta empatia».

«Kulpa heziketak du, non ezberdin hezten diren gizon eta emakumeak».

«Gizezkoa, nagusiki, hezitua izaten da gizarte matxista batean eta emakumea resignazio eta maitasun balioetan».

• **Erasotzailearen ezaugarriak/banakako azalpenak**

Beste alde batetik, erasotzaileak karakterizatzeko ahaleginean, erasotzailearen ezaugarri pertsonaletan oinarritzen dira (n=64; % 51,2).

Nolabaiteko **nahasteak edo psikopatologiak** erakusten dituztenak (n=22; % 18): gaixotasun mentalak, arazo psikologikoak edota pertsona menderatzaileei erlazioatutako pertsonalitate-nahasteak, kontrolatzeko zailtasunak dituztenak eta emozionalki hotzak direnak, indarkeriaren atzean justifikazioa bilatuz.

«Gizonek arazo psikologikoak eduki ohi dituzte, berez ez dira pertsona gaiztoak edo txarrak».

«Izaeran desoreka bat dagoelako, erasotzailearen izaera biktimaren baino askoz ere indartsuagoa izanik».

«Intolerantzia».

«Kontrol falta».

«Enpatia emozionala ez duten pertsonak».

Halaber, **autoestimua baxua** eta gizonaren **ziurgabetasuna** (n=21; % 16,8) askotan erabiliak izan dira emakumeenganako indarkeria azaltzeko.

«Emakumeenganako indarkeria, gizonek emakumeek baino segurtasun gutxiago eta beraien burua gutxiago baloratzen dutelako da».

Alkoholaren eta beste droga batzuen kontsumoa (n=9; % 7,2), erasotzailearen aurretiko horrelako esperientziak edo **erasotzailearen jatorrizko familian izandako indarkeria** (n=7; % 5,6) eta **zelo patologikoak** (n=5; % 4) aipatuak izan dira ere indarkeriaren azaltzaile bezala.

«Orokorrean burura etortzen zaidana da gizona edanda».

«Drogekin eragin handia izan dezaketela uste dut».

«Erasotzailearen arazoaren bat dauka, bera indarkeriako biktima izan dela txikitan».

«Izan ere, zeloak izan ditzake».

• **Bikotearen faktore psikosozialak eta testuingurukoak**

Beste azalpen batzuek **bikotearen testuinguru sozialari** eta faktore indibidualari egiten diete erreferentzia (n=32; % 25,6).

Alde batetik, **erasotzailearen egoera psikosoziala** (n=19; % 15,2), inguru-nearen presioa, estresa edo egoera kritikoak, hala nola langabezian egotea edota hezkuntza falta.

«Askotan, indarkeria edo tratua txarrak subjektuaren ingurunearen faktoreak sorrazten ditu».

«Inguruneko presioak».

«Lan falta eta familia desegituratuak».

«erasotzailearen hezkuntza falta».

Bestetik, **biktimaren egoera psikosoziala** (n=13; % 10,4), testuinguru sozio-ekonomikoa, bere autoestimua baxua eta aurre egiteko dituen zailtasunak.

«Baliabide eta euskarri sozialen falta izatea».

«Normalean biktimak gizarte-klase baxukoak izaten dira».

«Bikotearenganako menpekotasun asko izatea, eta abar».

«Emakumea hain gutxi baloratzen da, pentsatzen duela berak horrelako gauzak merezi dituela».

«Emakumea atzipetuta bizi da, bere egoera onartzeko eta aurre egiteko beldurrez».

- **Ulertezina**

Ulertezina eta justifikaezina (n=9; % 7,2) dela kontsideratzen dute.

«Ez dago balio duen zergatirik emakume bat tratu txarrak jasotzeko».

3.3. Prebentzio-estrategiak

Emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean izan beharreko prebentzio-estrategiei buruzko proposamenak aztertzeke helburuarekin, aurreko aztergaiekin eginiko prozedura berdinari jarraitu zitzaion. Erantzunak hurrengo galderetatik eratorri ziren:

«Zer motako neurriak iruditzen zaizkizu egokienak emakumeenganako indarkeria prebenitzeko?».

<i>3. taula.</i> Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioari asoziatuak dauden proposamenak, maiztasunak eta ehunekoak (N=125).		
	Maiztasuna	Ehunekoa
Informazioa eta gizarte-kontzientziak	41	% 32,8
Gizarte-kontzientziak	23	% 18,4
Informazioa (tratu txar motak, laguntzak...)	13	% 10,4
Komunikabideak	5	% 4,0
Heziketa	60	% 48,0
Haurtzaroko heziketa	18	% 14,4
Genero-berdintasunaren heziketa	20	% 16,0
Heziketa	13	% 10,4
Balioen heziketa	9	% 7,2
Salaketa - babesa	28	% 22,4
Babesa, harrera	20	% 16,0
Salaketa	8	% 6,4
Laguntza sozial eta ekonomikoak	25	% 20,0
Laguntza	12	% 9,6
Berehalakotasuna	7	% 5,6
Laguntza sozioekonomikoak	6	% 4,8
Eustea eta aurre-egite psikosoziala	37	% 29,6
Euste psikologiko eta autoestimua	16	% 12,8
Emakumea kontzientziatzea	15	% 12,0
Arazoari aurre egitea, birgizarteratzea	6	% 4,8
Justizia-neurriak	64	% 51,2
Justiziaren eraginkortasuna	30	% 24,0
Zigorren gogortasuna	16	% 12,8
Erasotzailearekiko laguntza	11	% 8,8
Kartzela	7	% 5,6
Ezin da	10	% 8,0
Ezin da, zailtasun asko daude	10	% 8,0

270 erantzun jaso ziren guztira eta 21 kategoria osatu ziren, guztira emandako erantzunen % 98,15 izanik.

Aurreko estimuluekin bezala, lehen kategorizazioa egin ondoren, esanahi-dimentsioak definitu ziren non barne hartzen diren kategoriak. Ondoren, analisi kualitatibo eta kuantitatibo bat egin zen 3. taulan ikusten den moduan.

• Informazioa eta gizarte-kontzientziarioa

Hemen kontuan hartzen dira emakumeei **informazioa emateko bide guztiak** (n=13; % 10,4), baita gizarteari oro har ere. Hala nola tratu txar motei buruzko informazioa, lehen erasoak eraso modura identifikatzeko argibideak eskainiz eta jaso daitezkeen laguntza eta errekurtsoak adieraziz.

«Komunikabideetan tratu txarren inguruan informazioa ematea, tratu txar mota desberdinak azalduz, tratu txarretatik irteteko jarraitu beharreko bideak emanez».

«Tratu txarren hasierako zeinu izan daitezkeen jarrerai buruzko informazioa eman emakumeei».

Sentsibilizazioa eta gizarte-kontzientziarioa ere (n=23; % 18,4) dimentsio honetan sartzen dira, gaur egun nagusi diren **komunikabideez** baliatuz (n= 5; % 4).

«Arazo hauek prebenitzeko lehenik eta behin gizartea berriz hezi behar da, arazo hauen aurrean kontzientzia ezberdina sortzeko».

«Komunikabideek honetan guztian lan asko egin behar dute».

«Telebista erabili daiteke modu didaktiko batean gai honen inguruan eztabaida eta elkarrizketa bideak zabaltzeko».

• Heziketa: haurtzarora, genero-berdintasuna eta gizarte-balioak

Zenbait ekintza hezitzaile gauzatzea (n=13; % 10,4) **gizarte guztiari zuzendutakoak; gizarte-balioak** hezteak (n=9; % 7,2), besteen errespetuan, bakearen eta elkarbizitzaren hezkuntzan non barne hartzen diren eraso mota guztiak kentzea eta berdintze-ingurune egokia ezartzea sexuen artean. Inportantea iruditzen zaie hezkuntza hau **adin goiztiarrean** (n=18; % 14,4) ematea eta **eskolak** prozesu honetan parte hartzea.

«Gizarte-eredu bat nahi badugu, non emakumeenganako indarkeriarik ez dagoen, batez ere haur eta gazteen hezkuntzan ikusten dut egin behar dela prebentzio-lana».

«Pertsona bakoitza den bezalakoa onartu eta gizartea humanizatu balioetan heziz».

«Txikitatik ikasi behar dugu berdintasuna eta tolerantzia, eta agresibitateak ez duela ezertarako balio ere, beste sexuko pertsonak errespetatuz».

Hezkuntza, **emakume eta gizarte-berdintasunean oinarrituz** (n=18; % 14,4), balio sexistak gaindituz eta genero-rol tradizionalei gaina hartuz. Horrela, emakumeen eta gizonezkoen estereotipoen eztabaida baimenduz egitura berdinak lortzea posiblea izango da. Bereziki aipatzen dituzte gizonezkoen zuzenduak diren hezkuntza-jarduerak, umeei, gazteei eta helduei. Eztabaida baimenduz balio maskulinoen eta femeninoen inguruan eta eredu femeninoa indartzea jarrera errespetagarri batekin.

«Ezberdintasunak ulertu eta genero-berdintasuna bultzatu».

«Berdintasun totalen oinarritutako gizarte bat eraiki».

«Gizonezkoaren rola aldatu behar da txikitatik, haurrak hezi behar dira, baita gazte eta helduak ere. Edaria bezalako ekintzak kontrolatuko dituen arau kulturalak ezarri, kultura feminista bat lortuz».

• Babesa - Salaketa

Modu azkar batean **salaketak aurrera eramatea** (n=8; % 6,4) eta biktimari **gehiegizko babesa** eskaintzea (n= 16; % 12,8) proposatzen dute, hala nola harrerera-etxe zerbitzuak.

«Ahalik eta azkarren emakumeak salaketa jartzea hasieratik, emakumeek salatzea».

«Babesa elementu garrantzitsua da kasu hauetan, hala ere harrerera-etxe gehiago behar dira».

• Euste sozial eta komunitarioa

Euste sozial eta komunitarioa (n=12; % 9,6) proposatzen dute, **zerbitzu sozial eta instituzionalak** hobetuz. **Esku-hartze sozial** arin, azkar eta eragilea eskainiz, **laguntza sozial eta ekonomiko** beharrezkoak eta emakumeen **lanean sartzea** (n=6; % 4,8), nagusizat hartuz **laguntzen berehalakotasuna** (n=7; % 5,6).

«Neurri sozialak eta beharrezkoak diren zentro espezializatuak eta diziplina anitzekoak hauen beharren esku geratzea».

«Biktimarekiko erraztasunak: laguntza ekonomikoa, lana eta seme-alabei laguntza».

«Lehenengo momentutik fenomeno honetan lan egin behar da».

• Eustea eta aurre-egite psikosoziala biktimarekiko

Arazo psikologikoei irtenbidea emateko **biktimari eustea** (n=16; % 12,8) eskaini behar zaio, emakumeei pasatzen zaiena kontatzeko eta sentimenduak adierazteko konfiantza-giro bat eskainiz. Babes psikologikoaren bitartez, beldurra, erru-sentimendua eta lotsa gainditu, **autoestimua indartu**, eta beren buruarenganako konfiantza berreskuratu ahal izango dute. Halaber, **terapia familiarra**, hone-lako arazoaren arrastoak dauden familietan eta lehenetik tratu txarren esperientzia izan dutenekin esku hartzea proposatzen dute.

«Lehenik eta behin emakumeak kanpo-laguntza duela sentitu behar du».

«Emakumeak autokonfiantza lortzeko laguntza psikologikoa eskaini amets gaizto honekin bukatzeko».

«Nagusiki, emakumeen autoestimua eta autonomia landu».

«Lotsa eta beldurra kentzeko».

«Tratu txarrak jasandako familiei laguntza psikologikoa eskaini».

Beren egoeraz kontziente eginez (n=15; % 12) **arazoari aurre egitean** lagundu (n=6; % 4,8), emakumea **birgizarteratzea**. Gertatzen ari denaz konturatu behar dira eta egoeraren ondorioak jakin behar dituzte. Emakumeak kontzien-

tziatzea ez direla inoren objektu, lehen erasoak eraso bezala identifikatzen lagundu eta zer egin behar duten jakinarazi.

«Emakumeak kontzientzia hartu behar du ezin duela edozein motatako eraso jasan, ezta barkatu ere».

«Emakumea inoren objektu ezta morroia denik kontzientziarazi».

«Indarkeria gairitu dezaketela jakinarazi eta egoera gogor hauetan bakarrik ez daudela jakin behar dute».

• **Justiziaren esku-hartze eraginkorra**

Justiziak erasotzailearekiko eduki beharreko hainbat neurri aipatzen dituzte.

Horrela, proposatzen dute **justiziaren eraginkortasuna** (n=30; % 24), **zigorren betetzea**, **zigorren gogortzea** (n=16; % 12,8) eta **erasotzailearen kartzelatzea** (n=7; % 5,6). Aldi berean, erreferentzia egiten diote **erasotzaileen hezkuntza berritzeari**, garrantzitsua kontsideratuz beraien perfila ezagutzea eta beharrezko **tratamendua** emanez berriro ere birgizarteratzeko (n=11; % 8,8).

«Gizonak bete beharreko kondena betetzea, bestalde egin duenarekin bat datorren kondena jartzea».

«Lege gogorragoak, tratu txarrak daudenean, urruntze-aginduak ez baitira nahikoak».

«Zaila da horrelako egoera bat gertatuko den ala ez jakitea, beraz prebenitu baino, saihestu egin behar da, erasotzailea matxismotik kartzelara eramanez, erasotzaileentzako zigorrak benetakoak izatea eta legeak zorroztea».

«Erasotzaileen perfilak ezagutzea».

«Arazoak dituzten gizonezko horiekin beraien arazoak tratatzea».

• **Ezin da**

Azkenik, erantzun zati batzuk daude non **ezinezkoa** edo **arazoa oso konplexu** eta soluzio zailkotzat ikusten duten (n=10; % 8). Alde batetik, uste dute ez daudela neurri eraginkorrak prebentziorako. Beste aldetik, gunere pribatuan emandako arazo bat dela eta alderdi afektiboak indar handia hartzen duela.

«Indarkeria hori prebenitzea zaila dela uste dut horrelako egoerak ezkutuan eramaten direlako, eta nahiz eta itxura oneko pertsona izan kalean etxean agian erasotzaile bat da».

«Sentimenduak sartzen dira tartean eta oso zaila da prebenitzea».

«Egun ez dago irtenbiderik, azken batez emakumea hilik agertzen da edo bere etxera itzultzen da, ez baitago beren etxetik irtetea ez den beste neurririk».

4. Ondorioak

Emakumearen kontrako indarkeriari dagokionez, lortutako emaitzek eztabaidarako lerro teoriko-praktikoak iradokitzen dituzte. Prebentzio-neurri bezala, beraien etorkizuneko lanean eragin dezaketean hainbat mito eta uste oker errebisatzeko aukera eman digute emaitzak eztabaidatuz eta gaiaren inguruko informazioa partekatuz.

Irudikapen Sozialaren Teoriak baliagarria den ikuspegia dakar, garapen teori-koak eta sentsibilizazio zein trebakuntza esku-hartze programetara hurbiltzeko erreminta izanik. Elkarrekin eragina duten faktore anitzetan jartzen du arreta eta problematika honen ulermena eta esku-hartzea ikuspuntu psikosozial batetik aztertzen du. Horrela, bere egituran desberdintasun sexuala, generoaren araberako sozializazioa, domeinuzko eta boterezko harremanak, non posizio desberdina hartzen duten pertsonak, eta abar barneratzen ditu teoria honek, indarkeria eraikuntza sozial gisa ulerturik (Gergen, 1984; Doménech eta Lñíguez, 2002; Ibañez, 1989; Stainton-Robers eta lag., 1995).

Oro har, dimentsio kognitiboak, afektiboak eta jarrerazkoak daudela ikusi da. Horien garrantziak fenomenoaren konplexutasuna erakusten du, arazoari aurre egiteko prozesuan, prebentzioan eta tratamenduan agertzen diren gatazka soziokognitiboak agerian utziz.

Osagai kognitiboari men eginez, parte-hartzaileen erdiak kontzeptuarekin erla-zionatuta dauden elementuak aipatzen ditu, indarkeria bere modu desberdinetan azalduz: tratu txar fisikoak, psikologikoak eta sexualak, egun dagoen arazo aipagarri bezala.

Zergatiei dagokienez, ikusi dugu emakumearen aurkako indarkeriaren azalpe-nen gehiengoa jatorri sozialari dagokiola. Badirudi emaitzak bat datozela genero-indarkeriaren sistema patriarkatu honen ondorio dela esaten denean (Corsi, 1995; Giffin, 1994; Heise, 1998). Emakumeen aurkako indarkeria, indibiduen arteko botere-desorekaren erantzuna dela ulertzen dute. Estereotipo sexualak (Echebu-rúa eta Fernández-Montalvo, 1998), generoaren inguruko rolak eta emakumearen gutxiagotasun naturala kontuan hartzen dituzte.

Hala ere, hasieran esan dugun bezala, galdetutakoen ehuneko handi batek emakumeen aurkako indarkeria erasotzailearen ezaugarri indibidualetara murriz-teko joera du: nortasun-nahasteak edo psikopatologiak, autoestimua baxua, droga eta alkoholaren kontsumoa, zelo patologikoak eta erasotzailearen jatorrizko fami-lian indarkeria eman izana. Bikotearen testuinguru sozioekonomikoari dagokionez, ingurunearen presioa, estres edo egoera kritikoak, langabezian egotea (Gelles, 1983; Smith, 1998) eta biktimaren testuinguru sozioekonomikoa (Pahl, 1985) bezalako faktoreak hartuko dira kontuan.

Haatik, eztabaidan jarritako partaideen argudioak kontuan hartzen baditugu, ikusten da genero-indarkeriaren fenomeno estrukturalen bitartekaritza gisa, pa-triarkatua eta honen lekukoa den adierazpen indibiduala daudela. Kausa anitzeko ereduari jarraituz (Heise, 1998; Heise eta García-Moreno, 2003; Sanmartín, Farnós, Capel eta Molina, 2000; UNICEF, 2000), etorkizuneko heziketari begira, emakumeen aurkako indarkeria fenomeno konplexu bat dela adieraztea da helburu. Jakinarazi behar da fenomeno hau ezin dela isolatua den zerbait bezala ulertu, ezaugarri indibidual, sozial eta bikotearen testuinguru baten elkarrekintzan gertatzen den fenomeno korapilatsu bat bezala baizik.

Eremu honetan lan egingo duten profesionalekin honetan guztian sakontzea oso garrantzitsua da, azken batez Chicanok eta Naredok (2003) dioten bezala,

indarkeria honen sorburua non dagoen ez badakigu, zaila izango da haren deuseztapenera iristea. Gizabanakoaren ikuspegitik, eraso egoera konkretu baten erantzun gisa ikusten bada, ikuspegi sozialetik indarkeria honek desberdintasunean oinarritutako harremanetan du sorburua. Hori horrela ulertuta, beharrezkoa izango da erantzuna maila sozial batean ematea (Bosch eta Ferrer, 2000): sozialki hitzarmen berri bat lortu behar da, legeria berria, hezkuntza-programetan aldaketak eta, horrela arazoari eta haren ondorioei erantzuna emango zaie, gainditu ahal izateko.

Osagai emozionalari dagokionez, biktimarekin erlazionatuta dauden emozio asko agertzen dira, bai subjektu bai objektu. Horrela, kontuan hartzen dira, biktimak eduki ditzakeen emozioak zein beraiengan eragin dezaketenak. Haiak lotuta daude indarkeriaren ondorio diren minarekin eta sufrimenduarekin, beldurrarekin eta izuarekin, eta defentsarik ezarekin. Aldi berean, tristura, inpotentzia eta amorrua agertzen dira, indarkeria-egoerak sortutako emozio gisa.

Aipagarria da dimentsio honek hartzen duen nagusitasuna (emaitzen laurdena baino gehiago emozioei dagokie). Dakigun bezala, irudikapen sozialak ez dira neutroak, baizik eta inplikaturik dauden taldeei eta objektuei emozionalki lotuta daude. Horrek azaltzen du prozesu kognitiboari eta jarrerazkoei lotzeko garrantzia.

Dimentsio emozionalak hartzen duen garrantzia, komunikabideak arazo hau tratatzeko orduan hartutako paperaren eragina izan daiteke, azken batez berriaren transmisioan emozioa erakustea ezinbestekoa izango da.

Komunikabideak informazio (edo desinformazio) iturri nagusiak dira eta indarkeriaren gaian pertsona erabili ohi dute. Euskal prentsan ateratako ikerketa batean, emakumearen indarkeriaren gaia jorratzeko orduan (Rodríguez, 2006) ikusi zen, galdetutako % 69,97rentzat komunikabideak zirela emakumeen aurkako indarkeriaren gaian informazio-iturri nagusiak.

Baina badirudi komunikabideak sare sentsazionalista batean jausi direla, non arazoaren informazio eta analisisa azaldu beharrean, harekin bat datorren irudia aukeratzen duten: odola, sufrimendua, malkoak eta mina horren lekuko. Indarkeria sexistaren berri ematean, dramatikoak diren gertaera pertsonalen multzo bezala aurkezten dute, arazo komun eta ideologikoaren irudia ezkutatuz. Azken batez, hori, emakume zein gizonezkoak hezten gaituen sistema patriarkalaren fruitua izanik. Horrela, gertaera kontatzen da baina ez arazoaren azpian dauden arrazoiak, eta gutxitan hurbiltzen dira adituengana edo argitaratu diren lanetara.

Zentzu horretan, komunikabideak jendearen iritzi-eragiletzat jotzen baditugu, eta galdetegietan izandako garrantzi txikiak ohartuta (bakarrik 5 pertsonak egiten diote erreferentzia komunikabideen asuntoari), badirudi ez dagoela komunikabideen informazioa transmititzeko erak duen garrantziaren inguruko kontzientzia argi bat, ezta gai honen sentsibilizazioan, sineskeren transmisioan, mito edota indarkeriaren inguruko jarreretan.

Emakumeen aurkako indarkeriaren balorazioari eta jarreraren osagaiari erreparaturaz, genero-indarkeriaren inguruko legerien arintzearen erantzunak nabarmentzen dira laginaren erdian. Baina, Chicano eta Naredok (2003) bere lanetan

emandako azalpenek dioten bezala, arazo honen erantzuna ez dago legeriaren eskuetan bakarrik, arazo honen prebentzioan baizik. Horretarako, berdintasunean eta errespetuan hezten duen heziketa beharrezkoa izango da, kontzientzia soziala bultzatuz, desberdintasun eta zigorrean oinarritutako jarrerak ezabatuz.

Beharrezkoa izango da, beraz, arazo honen magnitudeaz, ezaugarriez eta larritasunaz informatu eta sensibilizatzeari (Gelles, 1999). Kontzientzia soziala sortzeko helburuarekin, komunikabideetan emakumearen aurkako indarkeriaren inguruko informazioa zabaltzea behar da, jendartearen eraso hauek identifikatu eta salatzea eta emakumeei laguntza eskaintzeko. Tratu txarren tipologiaren eta egoera bati horietatik irteerako dauden bide posibleen inguruan informazioa ematea, lehenengo pauso informatibo eta prebentiboa izango da.

Sensibilizazioaren eremuan lana egitean, ikaskuntza sexista desaktibatu ahal izateko beharrezkoak diren estrategiak eskuratzea izango da helburu nagusia. Horrela, ezberdintasun-egoerak agerian utzi eta mundua ezagutzeko orduan, heziketa sexista batez kutsatuak izan direla ohartarazi nahi da. Garrantzia eman behar zaio heziketa kritiko bati, zeina ezarrita dauden rol, identitate eta boterearen poderioz emakumearen zapalkuntza ekarri duten jarrera diskriminatzaile eta erasotzaileen gainean lan egiteko armarik garrantzitsuena izango den.

Horregatik, heziketak jendarteaz gain, talde zehatz batzuk ere hartu behar dituzte kontuan, eta hauen behar zehatzak moldatutako mezua erabili. Egun, normalizatuta dauden jarreraren aurrean eskolatuta dauden haurren eraso jarrera kritikoa izan dezaten lagunduko duten jarduerak bultzatu behar dira.

Nahiz eta emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko estrategietan pentsatzea eskatu, emandako erantzun asko indarkeria mota hau desagerrarazteko hainbat neurri dagozkie, neurri prebentibo sekundariotzat hartuz. Zentzu horretan, garrantzitsua iruditzen zaie babes maximoa biktimarekiko, euste sozial eta komunitarioa eta sufrimenduari eta egoerari aurre egiteko tratamendu psikologikoa. Horrela, eustea, emakumezkoen kontzientziazioari eta arazoari aurre egitea kontuan hartzen dute.

Modu horretan, jakinarazi behar zaie ikasleei helburu hirukoitz batera iristea dela helmuga (Pelegriñ eta Garcés, 2004). Alde batetik jendarte osoari zuzendutako neurriak hartzea (lehen mailako prebentzioa). Bestetik, kutsu erasotzailea duten egoeren gainean lan egitea hauek moldatu ahal izateko (bigarren mailako prebentzioa). Eta hirugarren maila batean genero-indarkeriaren biktimei asistentzia ematea jasandako erasoek sortutako ondorioak leundu ahal izateko.

Horretaz gain, hezitzaileen artean, oinarritzko elementuaren inguruko hausnarketak plazaratzen dira, indarkeria erabiltzen duten gizonen inguruan, alegia. Erasotzailearen gain hartzeko neurri ugari aipatzen dituzte: atentzio handiagoa salatzeko orduan, zaintza eta babes polizial gehiago eskainiz. Justiziaren eraginkortasun handiagoa, zigorren betetzea, zigorren gogortzea, erasotzailearen kartzelatzea eta beharrezko tratamendua ematea.

Horrela, Corsiren eta Boninoren (2003) bideari jarraituz, genero-indarkeria erabiltzen duten gizonen problematika maila desberdinetan jorratu behar diren garrantziaz kontzientziazioa behar da. Lehen mailako prebentzioko estrategien

garrantzia adierazi beharko litzaielike hezitzaileei, arrisku-faktoreak murriztu ahal izateko. Hezkuntza-jardueren proposamenak, gizonezkoei zuzenduak, umeei, gazteei eta helduei. Emozioetan oinarritutako heziketa afektibo bat eskaini behar da, afektibitatea lantzeko, eta autokontrola bezalako abilezia indartuz. Arazoa azkar antzeman ahal izateko, ezinbestekoa izango da bigarren mailako prebentzio egoki bat. Modu eraginkor eta azkar batean indarkeriaren eragile ageriak dituzten gizonezkoekin lan eginez. Oro har, hauek, ohiko gizonaren irudi tradizionalarekin bat datoz, modu oldarkor eta posesiboan jokatzeko dutelarik. Hirugarren mailako prebentzioa arazoaren ondorioak gutxitzeko erabilia izan ohi da, horren bitartez birgizarteratzeko programak jarriko dira martxan berrerortzeak saihesteko asmoarekin. Programa horiek legeekin koordinatu behar dira, batez ere kartzelan dauden presoekin lana egiten denean. Izan ere, ikusi izan da esku-hartze egokiak direla erasotzaileekin egiten diren programa edota tratamendu psikologikoak. Egokia betiere erasotzailea arazoaz kontziente denean eta bere jokabide erasokorra aldatzeko interesa duenean (Madina, 1994).

Aipatutako guztiaren garrantziaz ohartuta, ezinbestekoa izango da berdintasunarekin edota emakumearen aurkako indarkeriarekin lotura duten gaiak unibertsitate mailan erabiliko diren gaitegietan barneratzea. Horrela proposatzen baitu 2004ko abenduaren 28an kaleratutako legeak (genero-indarkeriaren aurkako babes integralerako neurriei buruzko Lege Organikoa).

Oso garrantzitsua da heziketaren eremuan lan egiten duten profesional oro, indarkeriako kasu baten aurrean nola jokatu behar den jakitea eta gainerako profesionalekin koordinazio egokia zein den. Hau da modu bakarra indarkeria jasaten duten emakumeen beharrak asetzeko, eraginkorra den babesa eta kalitatezko atentzioa eskainiz.

Besettek eta Petersonek (2002) edo Lasherasek eta Piresek (2003) dioten bezala, profesionalek gaiaren inguruan dituzten hutsune eta sineskerak aztertu beharko lituzkete, hauek estereotipoen eraginez zenbaterainoko kutsadura duten ezagutu eta kontrolatu, eta horrela, bere egiteko profesionalean izango duen eragina saihestu. Horretarako gaiaren inguruko prestakuntza tinko bat beharrezkoa izango da (Carlshmare, 2005; Heise eta García-Moreno, 2003; Salber eta Taliaferro, 2000; UNICEF, 2000).

Heziketak komunikabideek emakumearen aurkako indarkeriaren inguruan emandako ikuspegia (indibidualista, sentsazionalista eta izugarritzko karga emozionala duena) «desaktibatu» edota ezabatzeke prozesuan paper garrantzitsu bat jokatuko du, arazoa ulertzeko beste dimentsio bat eskainiz.

Lan honen bitartez, uste dugu bide ireki bat uzten dela gai honen barnean uztarturik dauden agente sozialetan barneratu edo sakondu ahal izateko. Pentsamendu sozialaren ezagupenak ahalbidetuko du sentsibilizazio eta trebakuntzara bideratutako proiektuak diseinatzea. Horrelako esku-hartze integratu batek indarkeria matxistaren irudikapen, azalpenen analisi-maila eta ekintza sozial eraginkorrak sustatuko ditu.

Honek guztiak heziketaren garapenean lagunduko du, unibertsitateko ikasleak materia honen inguruko garapen teorikoetara hurbiltzean, hauek, diagnostiko

komuna eginez, bete behar diren beharrak identifikatuz eta arazo hau prebenitzeko, erazteko eta gainditzeko proposamenak martxan jarri.

5. Erreferentziak

- Allen, P. (1972): *Free space: A perspective on the small Group in women's Liberation*, Times Change, N.Y.
- Bessette, H.D. eta Peterson, S.S. (2002): "Attitudes of adult nurse practitioner students toward women experiencing domestic violence", *Journal of Nursing Education*, **41** (5), 227-230.
- Berkel, L.A.; Vandiver, B.J. eta Bahner, A.D. (2004): "Gender role attitudes, religion and spirituality as predictors of domestic violence attitudes in white college students", *Journal of College Student Development*, **45**(2), 119-133.
- Bosch, E. eta Ferrer, V.A. (2000): "La violencia de género: De cuestión privada a problema social", *Intervención psicosocial*, **9**(1), 7-19.
- Castro, R. eta Riquer, F. (2003): "La investigación sobre violencia contra las mujeres en América Latina: entre el empirismo ciego y la teoría sin datos", *Cadernos de Saúde Pública*, **19** (1), 135-146.
- Chicano, E. eta Naredo, C. (2003): "Violencia contra las mujeres. Violencia de género", *Documentación social*, **131**, 191-208.
- Corsi, J. (1994): "*Violencia Familiar. Una mirada interdisciplinaria sobre un grave problema social*", Paidós, Buenos Aires.
- , (1995): *Violencia masculina en la pareja. Una aproximación al diagnóstico y a los modelos de intervención*, Paidós, Buenos Aires.
- Corsi, J. eta Bonino, L. (2003): "Violencia y género: La construcción de la masculinidad como factor de riesgo", in J. Corsi eta G.M. Peyrú (arg.), *Violencias sociales*. Ariel, Bartzelona.
- Domènech, M. eta Iñíguez, L. (2002): "La construcción social de la violencia", *Athenea Digital*, **2**, 1-10.
- Echeburúa, E. eta Fernández-Montalvo, J. (1998): "Hombres maltratadores. Aspectos teóricos", in E. Echeburúa eta P. de Corral (arg.), *Manual de violencia familiar*. Siglo XXI, Madril.
- Ferrer, V.A.; Bosch, E.; Ramis, C.; Torres, G. eta Navarro, C. (2006): "La violencia contra las mujeres en la pareja: creencias y actitudes en estudiantes universitarios/as", *Psicothema*, **18** (3), 359-366.
- Freire, P. (1973): *Concientización*, Asociación de Publicaciones Educativas, Kolonbia.
- Gelles, R.J. (1999): "Family violence", in R.L. Hampton (arg.), *Family violence: Prevention and treatment*. Sage, Londres.
- , (1983): "An exchange/social control theory", in En Finkelhor; R.J. Gelles; G.T. Hotaling eta M.A. Straus (arg.), *The dark side of families: Current family violence research*, CA: Sage, Beverly Hills, 151-165.
- Gergen, K.J. (1984): "Agression as discourse", in A. Mummendey (arg.), *Social Psychology of Agression. From Individual Behaviour to Social Interaction*, Springer-Verlag, Berlin, 51-68.
- Gideens, A. (1995): *La construcción de la sociedad. Bases para la Teoría de la Estructuración*, Amorrotu, Buenos Aires.
- Heise, L.L. eta García-Moreno, C. (2003): "La violencia en la pareja", in E.G. Krug, LL. Dahlberg, K.A. Mercy, A.B. Zwi eta R. Lozano (arg.), *Informe mundial sobre violencia y salud*, Organización Panamericana de la Salud, Washington DC, 97-131.
- Heise, L.L. (1998): "Violence against women: an integrated ecological framework", *Violence Against Women*, **4**, 262-290.

- Heise, L. (1994): "Violencia contra la Mujer. La cara oculta de la salud", *Programa Mujer, Salud y Desarrollo*, Organización Panamericana de la salud, Washington
- Herman, J.L (1992): "*Trauma and recovery*", Basic Books, New York.
- Ibáñez, T. (1989): "*El conocimiento de la realidad social*". Sendai, Bartzelona.
- Lasheras, M.L. eta Pires, M. (2003): "*La violencia contra las mujeres considerada como problema de salud pública*". Instituto de Salud Pública de la Comunidad de Madrid, Madrid.
- Lorente, M. (2007): "Violencia de género, educación y socialización: acciones y reacciones", *Revista de Educación*, **342**, 19-35.
- Madina, J. (1994): "Perfil psicosocial y tratamiento del hombre violento con su pareja en el hogar", in E. Echeburúa (arg.), *Personalidades violentas*, Pirámide, Madrid.
- Moscovici, S. (1976): *La Psychanalyse son Image et son Public*, PUF, Paris.
- Mullender, A. (2000): "*La violencia doméstica. Una nueva visión de un viejo problema*", Paidós, Bartzelona.
- Pahl, J. (1985): "*Private violence and Public Policy: The Needs of Battered Women and the Response of the Public Services*", Routledge and Kegan Paul, Londres.
- Pelegrín, A. eta Garcés de los Fayos, E. (2004): "Aproximación teórico- descriptiva de la violencia de género: propuestas para la prevención", *Apuntes de Psicología*, **22 (3)**, 353-373.
- Sanmartín, J.; Farnós, T.; Capel, J.L. eta Molina, A. (2000): "*Violencia contra la mujer. Situación actual mundial*", Centro Reina Sofía para el Estudio de la Violencia, Valentzia.
- Stainton Rogers, R. eta Iag. (1995): *Social Psychology. A critical agenda*, Polity Press, Cambridge.
- Sugg, N.K.; Thomposn, R.S.; Thompson, D.C.; Maiuro, R. eta Rivara, F.P. (1999): "Domestic violence and primary care: attitudes, practices and beliefs", *Archives of Family Medicine*, **8**, 301-306.
- UNICEF (2000): "La violencia doméstica contra mujeres y niñas", Informe *Innocenti*, **6**.
- Yoshioka, M.R.; DiNoia, J. eta Ullah, K. (2000): "Attitudes toward marital violence", *Violence Against Women*, **7(8)**, 900-926.

